

2007KO EZAUGARRI METEOROLOGIKOAK
CARACTERÍSTICAS METEOROLÓGICAS DEL AÑO 2007

RESUMEN ANUAL.

El balance de precipitación del año 2007 es deficitario en prácticamente todo el territorio y puede catalogarse, en general, como seco.

La evolución temporal ha sido bastante irregular. Comienza el año con características bastante normales. En enero, gran parte del acumulado mensual se corresponde con la situación de advección del norte de los días 22 a 25. En estas cuatro jornadas se registran precipitaciones diarias entre 90 y 130 mm en numerosos puntos de la vertiente cantábrica, en forma de nieve en cotas bajas a partir del 23. En febrero las precipitaciones están más repartidas. De hecho, en varias estaciones se bate el record del mes de número de días de lluvia.

Le sigue una primavera húmeda, sobre todo en el interior. Hay que recordar que marzo llega a ser extremadamente húmedo en comarcas como el Alto Deba, los Valles Alaveses o la Rioja Alavesa. La máxima diaria más elevada se registra el día 8 de dicho mes en Leitzaran, 136.3 mm. Destaca también su segunda quincena, un periodo muy lluvioso que se prolonga hasta los primeros días de abril.

El estío muestra bastante variabilidad espacial. Es seco en la vertiente mediterránea y húmedo en la cantábrica, debido esencialmente al episodio de la cuarta semana de agosto, en el que se registran cantidades diarias muy abundantes (Añarbe 127.1 mm, Leitzaran 97 mm, Urkiola 89.2 mm, Berastegi 84.9 mm, Bidania 84.5 mm el día 21; Añarbe 130.3 mm, Oiartzun 129 mm, Leitzaran 99.3 mm, Ereñozu 94.9 mm, Lasarte 90.3 mm el día 23). Hasta entonces, el verano transcurría con valores, en general, por debajo de la media. Como respuesta hidrológica, los días 23 y 24 la lámina de agua en las estaciones de Ereñozu, en la cuenca del Urumea, y de Oiartzun, en la cuenca del mismo nombre, supera el nivel de inundación, llegándose a unos valores máximos de 2.1 m y 2.2 m respectivamente.

El otoño muy seco, en especial el mes de noviembre, condiciona significativamente la calificación anual. En la mayor parte del territorio ha llovido un 40 % por debajo de la media. Exceptuando el día 5 de octubre, en el que se acumulan más de 60 mm en puntos de Gipuzkoa (Jaizkibel 77.4 mm, Oiartzun 73,8 mm, Aizarnazabal 68.5 mm, Lasarte 60,5 mm), el resto del otoño transcurre sin acumulados diarios relevantes.

Como es habitual, la zona montañosa limítrofe con Navarra en las comarcas de Donostia-San Sebastián y Tolosa es la que más precipitación ha registrado. Aquí encontramos las únicas estaciones que han superado los 2000 mm anuales, Añarbe 2221 mm y Leitzaran 2183 mm. Existe otro máximo secundario en los montes de la divisoria de aguas, entre Álava y Bizkaia, siendo la estación del puerto de Barazar la más destacada, 1710 mm. Este valor contrasta con los del Bilbao Metropolitano, donde no se han alcanzado los 1200 mm. La precipitación desciende progresivamente hacia el sur de Álava, con repuntes en los montes de Vitoria e Iturrieta, y en la Sierra de Cantabria (Arkaute 696 mm, Iturrieta 1059 mm). En la Rioja Alavesa y al sur de los Valles Alaveses apenas se superan los 500 mm (Párganos 513 mm, Zambrana 525 mm).

URTEKO LABURPENA.

2007 urtean prezipitazio gutxi jaso zen ia lurralde osoan eta, orokorrean, urte lehortzat jo daiteke.

Prezipitazioa oso modu irregularrean banatu zen. Urtea ohi bezala hasi zen. Urtarrilean jaso zen prezipitazio kopuru handiena, hilaren 22tik 25era bitartean jaso zen; iparraldetik sartu zen aire masa hotz batek eragin zuen euritea. Lau egun hauetan, 90 eta 130 mm arteko kopuruak jaso ziren kantauri isurialdeko zenbait gunetan. Hilaren 23tik aurrera elur moduan jaso zen prezipitazioa kota baxuetan. Otsailean prezipitazioa egun gehiagotan banatu zen. Hainbat estazioetan hileko inoiz izan den prezipitazio-egun kopuru handiena neurtu zen.

Udaberria hezea izan zen, batez ere barnealdean. Martxoan izugarri hezea izan zen Deba Garaia, Arabako Lautada edo Arabar Errioxa bezalako eskualdeetan. 24 orduan pilatutako kantitaterik handiena ere hil honetan bertan, 8an neurtu zen, 163,3 mm Leitzaranean. Martxoaren bigarren hamabostaldia eta apirilko lehen egunak ere oso euritsuak izan ziren.

Uda lehorra izan zen mediterranean isurialdean eta hezea kantauri isurialdean. Abuztuko laugarren astean euria erruz egin zuen, eta gertaera honi esker jo dezakegu 2007ko uda hezetzat kantauri isurialdean. Egun hauetan 24 orduan jasotako prezipitazio kopurua oso ugaria izan zen (hilaren 21ean: Añarben 127,1 mm, Leitzaranean 97 mm, Urkiolan 89,2 mm, Berastegin 84,9 mm, eta Bidanian 84,5 mm; hilaren 23an: Añarben 130,3 mm, Oiartzunen 129 mm, Leitzaranean 99,3 mm, Ereñozun 94,9 mm, eta Lasarten 90,3 mm). Gertaera honen aurretik uda, orokorrean, ohikoa baino lehorragoa izaten ari zen. Eurite haren ondorioz, hilaren 23an eta 24an Gipuzkoa ekialdeko ibaien ur emaria nabarmen igo zen. Urumeako arroan dagoen Ereñozuko estazioan eta Oiartzungoan (Oiartzuneko arroa) uholde-maila gainditu zen eta 2,1 m eta 2,2 m-ko maila maximoetara iritsi ziren, hurrenez hurren.

Udazkena oso lehorra izan zen, bereziki azaroa, eta urtaro honek baldintzatu zuen urteko balantzea. Ia lurralde osoan ohiko batez besteko balioa baino % 40 euri gutxiago egin zuen. Udazken osoan ez zen nabarmentzeko egun euritsurik izan, urriaren 5a salbu; egun horretan Gipuzkoako hainbat lekutan 60 mm ur baino gehiago jaso zen (Jaizkibelen 77,4 mm, Oiartzunen 73,4 mm, Aizarnazabalen 68,5 mm, eta Lasarten 60,5 mm).

Maiz gertatu ohi den bezala, Nafarroarekin muga egiten duten eskualdeetan, Tolosaldean eta Donostialdean jaso zen euri kopuru handiena. Bi eskualde hauetan dauden estazio batzutan, urte osoan 2000 mm baino gehiago jaso ziren: Añarben 2221 mm eta Leitzaranean 2183 mm. Isurialde-banalerroan aurkitzen den beste estazio batetan ere litro asko jaso ziren, Araba eta Bizkaia artean aurkitzen den Barazarko estazioan 1710 mm, hain zuzen. Aldiz, Bilbo Handian 1200 mm ur jaso zen. Jasotako ur kopurua oraindik txikiagoa izan zen Araba hegoaldean. Arabar Errioxan eta Arabako Lautadako hegoaldean justu gainditu ziren 500 mm (Paganosen 513 mm eta Zambranen 525 mm). Hala ere, zonalde hauetan badaude prezipitazio zertxobait gehiago jaso zen estazioak ere (Arkaute 696 mm eta Iturrieta 1059 mm).

A nivel térmico, el año 2007 puede calificarse como cálido en la vertiente cantábrica y muy cálido en la mediterránea. La temperatura media se ha aproximado a los 15 °C en el litoral, y se ha situado entre los 11-12 °C en la Llanada Alavesa, lo supone una diferencia aproximada de 0.5 °C y 1 °C respecto a los valores normales, respectivamente.

El año ha tenido dos periodos bastante diferenciados, de características cálidas el primero, que se prolonga hasta el mes de julio, frío el segundo. Efectivamente, tanto el invierno como la primavera, exceptuando la segunda quincena de marzo, han mostrado un carácter muy cálido. De hecho, se aproximan a las efemérides del periodo de referencia 1971-00.

El verano ha sido una estación de transición. En relación a los últimos años, se rompe la tendencia marcada en el 2003 de veranos muy calurosos. Junio transcurre hasta bien entrada la segunda quincena con temperaturas por encima de la media. A partir de entonces los periodos de calor se han espaciado regularmente y han sido de corta duración. A título de ejemplo, en Vitoria-Gasteiz la media de las mínimas en la primera quincena es inferior a 10 °C, un valor más propio de septiembre.

Ya en el otoño, la temperatura se comporta de manera muy fría en la vertiente cantábrica y más próxima a lo normal en la mediterránea. Así, después del extremadamente cálido otoño del año pasado, nos encontramos ahora con uno de los más fríos, cuyos valores se aproximan a los registrados a principios de los años 70.

Las mínimas absolutas tienen lugar a finales de enero, del 26 al 29, como es habitual, tras un episodio de nevadas y con flujo continental. Aunque el valor más bajo se registra el día 27, -14.7 °C en Salvatierra, las heladas fuertes son más generalizadas en la Llanada Alavesa el día 29 (Salvatierra -13.2 °C, Ozaeta -11.7 °C, Arkaute -11.3 °C, Alegría -10.8 °C). Estos días los registros negativos llegan hasta la costa, sobre todo, a la más oriental, de un régimen menos oceánico.

El día 28 de agosto puede considerarse como el más caluroso del año (Espejo 38.7 °C, Subijana 38.2 °C, Sodupe 38.2 °C). En la costa se superan los umbrales de temperaturas extremas (Lasarte 37.3 °C, Zarautz 35.2 °C). Además, numerosas estaciones registran una "noche tropical" (Párganos 21.4 °C, Navarrete 21.1 °C, Zaratamo 20.7 °C, Amorebieta 20.4 °C).

Como es lógico, las estaciones ubicadas en las cumbres de las montañas son las que han registrado velocidades medias de viento más altas, por encima de 20 km/h en casi todas ellas. Los valores más elevados se corresponden con Oiz (26.7 km/h) y Zaldiaran (25.2 km/h). Las zonas costeras también presentan velocidades medias importantes, en torno a 16 km/h en Punta Galea y 14 km/h en Zarautz. En la Llanada Alavesa los valores se reducen considerablemente, entre los 8-9 km/h, y aún más en algunos valles interiores de Bizkaia y Gipuzkoa, donde se miden las medias más bajas, alrededor de 6 km/h. La evolución a lo largo del año muestra un invierno bastante ventoso, por encima de 37 km/h en Oiz en febrero.

Temperaturari dagokionez, 2007a epela izan zen kantauri isurialdean eta oso epela mediterranear isurialdean. Batez besteko temperatura 15 °C-ra hurbildu zen kostaldean eta 11-12 °C artean egon zen Arabako Lautadan. Batez besteko hauek, gutxi gorabehera ohiko batez bestekoak baino 0,5 °C eta 1 °C altuagoak izan ziren, hurrenez hurren.

Urteak bi denboraldi ezberdin izan zituen. Lehenengoa epela izan zen, urte hasieratik uztaila bitartekoa, eta hotza bigarrena. Martxoko bigarren hamabostaldia ezik, negua eta udaberria oso epelak izan ziren. 1971-2000 denboraldiko efemerideetara hurbiltzen da tarte hau, hain zuzen.

Uda normala izan zen kostaldean eta epela barnealdean. Zentzu honetan, 2003tik finkatzen ari zen joera hautsi egin zen, hau da, uda oso epelak izatearena. Ekainean, lehenengo hiru astetan gutxi gorabehera, batez besteko temperatura, ohiko batez besteko temperatura baino altuagoa izan zen. Udako gainontzeko egunetan bero denboraldiak oso laburrak izan ziren eta oso erregular banatu ziren. Esaterako, abuztua hotza izan zen. Lehen hamabostaldian temperatura minimoen batez bestekoa Vitoria-Gasteizen 10 °C baino baxuagoa izan zen. Balio hauek irailan neurtu ohi dira.

Udazkena oso hotza izan zen kantauri isurialdean eta ohiko batez bestekora hurbildu zen mediterranear isurialdean. Gauzak horrela, 2006ko udazkena izugarri epela izan zen eta 2007koa, berriz, hotzenetarikoa. Balioak, 70eko hamarkada hasieran neurtu zirenera hurbildu ziren 2007an.

Temperatura minimo absolutuak urtarrilaren amaieran neurtu ziren, 26tik 29ra bitartean; usu gertatzen denez, elurte baten ondoren eta ekialdeko haize lehorrarekin. Baliorik baxuena hilaren 27an neurtu zen Agurainen, -14,7 °C. Hala ere, goizalde hotzena hilaren 29a izan zen, Arabako Lautada osoan izotz gogorra bota zuen (Agurainen -13,2 °C, Ozaetan -11,7 °C, Arkauten -11,3 °C, eta Alegrian -10,8 °C neurtu ziren). Egun horietan kostaldean ere izotza bota zuen, batez ere ekialdean.

Abuztuaren 28a, urteko egunik beroena izan zen (Espejon 38,7 °C, Subijanan 38,2 °C eta Sodupen 38,2 °C). Kostaldean muturreko temperatura maximoen muga gainditu zen (Lasarten 37,3 °C eta Zarautzen 35,2 °C). Gainera, gauean hainbat estazioetan temperatura ez zen 20 °C-tik jaitsi (Paganosen 21,4 °C, Navarreten 21,1 °C, Zaratamon 20,7 °C eta Zornotzan 20,4 °C izan ziren temperaturarik baxuenak), "gau tropikal"-tzat jo dezakegu.

Mendi inguruetan dauden estazioetan neurtu ziren haizearen batez besteko abiadura altuenak, gehienetan batez bestekoak 20 km/h-ko abiadura gainditu zuen. Baliorik altuenak Oizen (26,7 km/h) eta Zaldiaranen (25,2 km/h) neurtu ziren. Kostaldeko estazioetan neurtu ziren batez besteko abiadurak ere kontutan hartzekoak dira: Punta Galean 16 km/h inguruko abiadura eta Zarautzen 14 km/h ingurukoa. Arabako Lautadan, aldiz, batez besteko abiadura txikiagoa izan zen, orokorrean 8-9 km/h ingurukoa. Abiadura are txikiago izan zen Bizkaia eta Gipuzkoako barnealdeko bailaretan, 6 km/h ingurukoa. Urte oso kontutan hartuz gero, esan dezakegu negua haizetsua izan zela; adibidez, otsailean Oiz estazioko batez besteko abiadura 37 km/h-koa izan zen.

Se han alcanzado varias rachas máximas de viento por encima de los 120 km/h, restringidas a los meses de febrero, marzo y diciembre. En concreto, el valor más alto se registró el 7 de marzo, Cerroja 165.2 km/h, al paso de una depresión por el Golfo de Bizkaia. Pocos días antes, el 4, una galerna de tipo frontal y carácter fuerte atraviesa las costas vascas (Punta Galea registra una racha del NW de 110.9 km/h). Huracanados también, pero de componente sur, soplan entre los días 16 y 17, debidos a la ciclogénesis sobre el Golfo de Bizkaia (Oiz 147.6 km/h, Orduña 141.5 km/h, Zambrana 139.3 km/h).

Haize-bolada bortitzak (120 km/h-ko abiadura baino altuagokoak) ere makina bat neurtu ziren otsailean, martxoan eta abenduan. Baiorik altuena martxoaren 7an neurtu zen Cerrojan, 165 km/h-ko haize-bolada (ipar-mendebaldekoa); Bizkaiko Golkotik pasa zen depresiogune batek eragin zuen haizetea. Egun batzuk lehenago, martxoaren 4an, enbata frontal gogor batek kostaldea zeharkatu zuen, eta gertaera honetan 110,9 km/h-ko ipar-mendebaldeko haize-bolada neurtu zen Punta Galean. Otsailean, hilaren 16 eta 17an hegoaldeko haize-bolada bortitzak izan ziren; Oizen 147,6 km/h, Orduñan 141,5 km/h eta Zambranan 139,3 km/h-ko abiadura neurtu ziren. Azken gertaera hau ere, Bizkaiko Golkoan sortu zen depresiogune batek eragin zuen.

ENERO

Enero se caracterizó por ser un mes totalmente anticiclónico. Durante la primera quincena del mes estuvimos bajo la influencia de un potente anticiclón situado al sur de Europa, lo que ocasionó tiempo estable con.

A lo largo de las tres primeras semanas del mes de enero el anticiclón peninsular o la dorsal del anticiclón de las Azores dominan el panorama sinóptico de la Península Ibérica. La intensa circulación zonal transcurre al norte de la misma, de manera que sobre la cornisa cantábrica tan sólo roza la cola de algún frente. A partir del día 21 la fuerte ondulación de la corriente general del oeste en el Atlántico hace que una masa de aire tropical vaya hacia el norte, mientras que a Europa llega una masa de aire ártico. En este contexto, dos depresiones se cuelean por el Golfo de Bizkaia, dejando a lo largo de los cuatro días siguientes precipitaciones muy abundantes en la vertiente cantábrica, en forma de nieve en cotas bajas. La situación evoluciona hacia un tipo de circulación desprendida, con el anticiclón atlántico centrado al SW de las Islas Británicas y extendiéndose hacia el continente. El flujo del NE favorece la entrada de aire frío y seco.

Las cantidades de precipitación recogidas califican enero como un mes, en general, normal en la costa y seco en interior, llegando a muy seco en la Rioja Alavesa. Los valores más importantes, por encima de 150 mm, se han registrado en el interior de Gipuzkoa. La precipitación disminuye progresivamente hacia el sur, de manera que en la Llanada Alavesa ronda los 50 mm y en la Rioja Alavesa apenas se alcanzan los 15 mm. Gran parte de este volumen se corresponde a la situación de advección del norte de los días 22 a 25. En estas cuatro jornadas se registran precipitaciones diarias entre 90 y 130 mm en numerosos puntos de la vertiente cantábrica, en forma de nieve en cotas bajas a partir del 23.

En cuanto a las temperaturas, enero se ha comportado como un mes cálido. La media mensual ha sido de poco más de 10 °C en la costa y unos 4-5 °C en la Llanada Alavesa, es decir, 1-1.5 °C por encima de lo normal. Las tres primeras semanas transcurren con temperaturas realmente templadas y bastante constantes. En la zona litoral son frecuentes los días con máximas próximas a los 18 °C y mínimas que no bajan de los 10 °C. Los valores más elevados llegan el día 18: Oiartzun 22.9 °C, Andoain y Oleta 21.6 °C, Lasarte 21 °C. Posteriormente, la entrada de una masa de aire desde latitudes muy altas provoca un paulatino y significativo descenso de la temperatura. Las mínimas absolutas llegan después del episodio de nevadas, con vientos de procedencia continental: el día 27 Salvatierra registra -14.7 °C. Los dos días siguientes continúan las heladas fuertes en puntos de la Llanada Alavesa.

Los vientos locales y la componente oeste predominan durante las tres primeras semanas de enero. A partir de entonces la situación cambia por completo debido a la advección del norte. Las rachas máximas se corresponden con dicho episodio. Así, el día 25 Punta Galea registra 106.6 km/h, La Garbea 105.8 km/h y Párganos 82.1 km/h. Con la entrada del anticiclón atlántico sobre el continente y la depresión aislada en altura la componente se torna más del este.

URTARRILA

Urtarrileko lehen hiru astetan, Iberiar Penintsula antizikloien eraginpean egon zen, batzutan penintsulako antizikloiaren eraginpean eta bestetan Azoreetako antizikloiaren menpe. Zirkulazio zonala Iberiar Penintsularen iparraldean kokatu zen; gauzak horrela, Kantauri Itsasoko ertzeren baten isatsa besterik ez zen iritsi. Hilaren 21etik aurrera, Ozeano Atlantikoko mendebaldeko fluxuan uhin bat eratu zen; uhinak tropikoko aire masa epel bati iparralderantz eragin zion eta artikotik zetorren aire masa hotz bat sartu zen Europan. Egoera hark baldintzatuta, bi depresiogune sartu ziren Bizkaiko Golkora eta ondorengo lau egunetan euria erruz egin zuen kantauri isurialdean, elurra ere bai kota baxuetan. Isolatutako zirkulazio batean bilakatu zen egoera; hau da, Ozeano Atlantikoko antizikloiak Britainiar uharteren hego-mendebaldean zuen gunea eta kontinenterantz zabaltzen zen. Ipar-ekialdeko haizea nagusitu zen; aire hotza eta lehorra bidali zuen EAera.

Hilabete osoan jaso zen prezipitazioa kontutan hartuz, hilabetea normaltzat jo daiteke kostaldean, lehortzat barnealdean, eta oso lehortzat Arabar Errioxan. Prezipitazio kopuru garrantzitsuenak, hau da 150 mm baino gehiagokoak, Gipuzkoa barnealdean neurtu ziren. Zenbat eta hegoalderago, prezipitazio gutxiago jaso zen; Arabako Lautadan 50 mm inguru eta Arabar Errioxan apenas iritsi ziren 15 mm jasotzera. Jasotako prezipitazioaren ia bolumen osoa hilaren 22tik 25era bitartean jaso zen, iparraldeko adbekzioak eragindako prezipitazioa izan zen. Lau egun horietan, kantauri isurialdeko hainbat lekutan 90 eta 130 mm arteko kopuruak jaso ziren egunero. Hilaren 23tik aurrera, elur moduan egin zuen prezipitazioa.

Temperaturari dagokionez, urtarrila epela izan zen. Hilabeteko batez bestekoa 10 °C ingurukoa izan zen kostaldean eta 4-5 °C ingurukoa Arabako Lautadan, hots, ohiko batez bestekoa baino 1-1,5 °C altuagoa. Lehen hiru astetan temperatura oso epelak neurtu ziren eta apenas eman zen aldaketarik. Kostaldean, egun askotan temperatura maximoa 18 °C ingurukoa izan zen eta minimoa ez zen 10 °C-tik jaitsi. Temperatura altuenak hilaren 18an neurtu ziren: Oiartzunen 22,9 °C, Andoainen eta Oletan 21,6 °C, eta Lasarten 21 °C. Ondoren, goi-latitudeetatik aire masa hotz bat sartu zen eta temperaturak behera egin zuen; pixkanaka, baina modu esanguratsuan. Elurtearen ondoren neurtu ziren temperatura minimo absolutuak, kontinenteko fluxuarekin: hilaren 27an, Agurainen -14,7 °C. Ondorengo egunetan izozte gogorak izan ziren Arabako Lautadan.

Tokian tokiko haizea eta mendebaldekoa nagusi izan ziren urtarrileko lehen hiru astetan. Gero, iparraldeko adbekzioa zela medio, egoera erabat aldatu zen. Haize-bolada maximoak iparraldeko haizeak eragindakoak izan ziren. Hilaren 25ean, Punta Galean 106,6 km/h-ko abiadura neurtu zen, La Garbean 105,8 km/h-koa eta Paganosen 82,1 km/h-koa. Gainontzeko egunetan ekialdeko haizea nagusitu zen, izan ere Ozeano Atlantikoko antizikloia kontinentean sartu zen eta goi-geruzetan askatutako depresiogune bat zegoen.

FEBRERO

Durante la primera semana de febrero predominan las situaciones sinópticas anticiclónicas, con tiempo estable y brumas persistentes. A partir de entonces, se reestablece la circulación zonal a bajas latitudes. La larga cadena de depresiones y frentes dejan varios días de precipitaciones. A mediados la circulación se ondula. La dorsal subtropical invade el occidente europeo. Se alcanzan entonces las temperaturas máximas mensuales. Mientras tanto, la depresión de Islandia se profundiza y se prolonga en forma de vaguada hasta el oeste de la Península Ibérica. La ciclogénesis asociada a la misma, con circulación cerrada en altura, en su desplazamiento desde el Golfo de Bizkaia hacia el Mediterráneo, da lugar el día 18 a las precipitaciones más cuantiosas del mes. Posteriormente vuelve a instalarse el régimen zonal. Al norte del anticiclón de las Azores circulan rápidamente varios frentes, que dejan un régimen irregular de precipitaciones poco abundantes en general.

Las precipitaciones caídas en febrero dejan calificaciones diferentes a lo largo del territorio. Existe una cierta transición desde el sur de Álava, muy húmedo, a la costa, que se ha comportado de manera normal. Las estaciones ubicadas en la divisoria principal de aguas y del este de Gipuzkoa son las que más precipitación han registrado (Zegama 223 mm, Leizaran 200 mm, Barazar 179 mm). Destacan también los 89 mm de Párganos, un valor poco usual en la comarca de la Rioja Alavesa. Ha habido muchos días de lluvia a partir de la primera semana, que se han repartido a lo largo del mes. El más importante, el del día 18, muy abundante en la vertiente cantábrica y el norte de Álava (Embalses del Gorbea 80 mm, Matxinbenta 66 mm, Barazar 65 mm).

A nivel térmico, febrero se ha comportado como un mes muy cálido. La media mensual ha rondado los 12 °C en la costa y los 8 °C en la Llanada Alavesa, es decir, valores de más de 2 °C por encima de lo normal. El aire frío de finales de enero es reemplazado por masas de origen tropical marítimo. De esta manera, las temperaturas van recuperándose progresivamente y resultan bastante templadas. Las heladas, de carácter débil, se han producido sobre todo en la primera semana y se han ceñido prácticamente al territorio alavés. Con la advección del sur de mediados de mes se alcanzan los valores más elevados; en concreto, 22 °C en el litoral guipuzcoano el día 15, y al día siguiente en toda la franja costera, con unas máximas de 24.7 °C en Oiartzun, 23.4 °C en Ereñozu y 23.1 °C en Zarautz.

Exceptuando la primera semana, con régimen variable de vientos correspondientes a situaciones anticiclónicas, el resto del mes predomina el flujo zonal. Vientos del tercer y cuarto cuadrante soplan de manera intensa a lo largo de muchos días. Destacan los del día 14, asociados al paso de una borrasca con centro sobre Bretaña, que empiezan soplando del SW y se intensifican con la rolada al NW, especialmente en la costa (Bermeo 135.4 km/h, Cerroja 132 km/h, La Garbea 123.8 km/h, Zaldiaran 122 km/h). Huracanados también, pero de componente sur, soplan entre los días 16 y 17, debidos a la ciclogénesis sobre el Golfo de Bizkaia (Oiz 147.6 km/h, Orduña 141.5 km/h, Zambrana 139.3 km/h).

OTSAILA

Otsaileko lehen astean antizikloiaren eraginpean egon ginen; eguraldi egonkorra eta lanbro iraunkorra izan genituen. Bigarren astean zirkulazio zonala finkatu zen latitude baxuetan. Depresioguneek eta fronte-kate ezberdinek prezipitazio-egun ugari eragin zituzten. Hilabete erdialdera zirkulazioa izurtu egin zen. Dorsal subtropikal batek Europa mendebalde osoa hartu zuen bere eraginpean. Orduan neurtu ziren hileko tenperatura altuenak. Bitartean, Islandian zegoen depresiogunea sakondu egin zen eta aska moduan luzatu zen Iberiar Penintsularen mendebaldera. Beste depresiogune bat sortu zen Bizkaiko Golkoan; goi-geruzetan ere zirkulazio itxia zeraman, eta mediterraneora mugitu zen. Bidean euri franko utzi zuen eta 18a izan zen hileko egunik euritsuena. Gero, zirkulazio zonala berrezarri zen. Azoreetako antizikloiaren iparraldetik hainbat fronte pasatu ziren eta prezipitazio-egun batzuk izan ziren, dena den, euri gutxi egin zuen orokorrean.

Prezipitazioa ezberdin banatu zen eskualdeetan. Araba hegoaldean hilabete oso hezea izan zen eta kostaldean normala. Isurialde-banalerroan dauden estazioetan eta Gipuzkoa ekialdekoetan jaso zen prezipitazio gehien (Zegaman 223 mm, Leitzaranean 200 mm, eta Barazarren 179 mm). Nabarmentzekoa da Paganosen jaso ziren 89 mm-ak, ezohizko balioa Arabar Errioxan. Lehen astearen ondoren, hilabete osoan banatu ziren prezipitazio-egun asko izan ziren. Hilaren 18an prezipitazioa oso ugaria izan zen kantauri isurialdean eta Araba iparraldean (Matxinbentan 66 mm eta Barazarren 61 mm).

Temperaturari dagokionez, otsaila hilabete oso epela izan zen. Hilabeteko batez bestekoa 12 °C-koa izan zen kostaldean eta 8 °C-koa Arabako Lautadan, hots, ohiko batez besteko balioa baino 2 °C altuagoa. Urtarril amaieran nagusi izan zen aire hotza, jatorri tropikaleko aire masa epel batek ordezkatu zuen. Honela, tenperatura igotzen hasi eta giroa epeldu egin zen. Esan dezakegu, izotza lehen astean egin zuela eta batez ere Araban. Hilabete erditik aurrera aire masa epel bat sartu zen hegotik eta tenperatura altuenak orduan neurtu ziren. Hilaren 15ean, Gipuzkoako kostaldean 22 °C-ra iritsi zen termometroa, eta hurrengo egunean kostalde osoan neurtu ziren tenperatura altuak, maximoak: 24,7 °C Oiartzunen, 23,4 °C Ereñozun, eta 23,1 °C Zarautzen.

Lehen astean, egoera antiziklonikoetan gertatu ohi denez, norabide aldakorreko haizea ibili zen, aldiz gainontzeko egunetan mendebaldeko haizea nagusitu zen. Hego-mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizea bizi ibili zen egun askotan. Hilaren 14an, hego-mendebaldeko haizea ibili zen eta Britainian gunea zuen depresiogune baten mugimendua zela medio, haizeak ipar-mendebaldera egin eta zakartu egin zen, bereziki kostaldean. Orduan ipar-mendebaldeko haize-bolada bortitzak neurtu ziren (Bermeon 135,4 km/h, Cerrojan 132 km/h, La Garbean 123,8 km/h, eta Zaldiaranen 122 km/h). Hilaren 16tik 17ra bitartean ere haize-bolada bortitzak izan ziren (Oizen 147,6 km/h, Orduñan 141,5 km/h, eta Zambranen 139,3 km/h). Azken gertaera honetan hegoaldeko haizea ibili zen, eta Bizkaiko Golkoan sortu zen depresioguneak eragin zuen haize zakarra.

MARZO

Los días 7 y 8 debido a una depresión sobre el Golfo de Bizkaia y al posterior flujo marítimo establecido por el anticiclón de las Azores, las precipitaciones son muy abundantes, sobre todo en Gipuzkoa. En la segunda quincena destaca la entrada de una masa de aire muy fría y húmeda, procedente de latitudes polares, resultado del intenso flujo del norte establecido entre un potente anticiclón atlántico y una profunda depresión centrada en Escandinavia. El paso de un frente cálido eleva las temperaturas, pero hace que persistan las precipitaciones muy abundantes. En la recta final del mes continúa la inestabilidad atmosférica.

Marzo se ha comportado como un mes muy húmedo, llegando a extremadamente húmedo en comarcas como el Alto Deba, los Valles Alaveses o la Rioja Alavesa. En buena parte del territorio ha llovido más del doble de lo normal en esta época del año (Leitzaran 496 mm, Berastegi 408 mm, Arrasate 375 mm). Los 126 mm de Párganos son inéditos para este mes. La máxima diaria más elevada se registra el día 8 en Leitzaran, 136.3 mm. Del 19 hasta la madrugada del 22 se producen chubascos de carácter tormentoso, que dan lugar a acumulados diarios muy abundantes en el interior, con una cota de nieve que llega a bajar hasta los 200 m.

A nivel térmico, marzo se ha comportado como un mes normal para el conjunto del territorio. La media mensual ha rondado los 11 °C en la costa y los 7 °C en la Llanada Alavesa. El mes comienza con temperaturas bastante templadas para esta época del año. El día 4 el efecto Foehn eleva los registros en la costa hasta los 18 °C. Las temperaturas, sobre todo las mínimas, bajan en la segunda semana con el anticiclón centroeuropeo (Herrera -4.8 °C, Navarrete -4.3 °C). Sin embargo, las jornadas más frías se corresponden con el episodio de nieve. Así, en la Llanada Alavesa los días 20 y 21 la media ronda los 0 °C.

Durante la primera semana de marzo los vientos dominantes son del oeste, bastante intensos. Destaca el desarrollo de una galerna fuerte el día 4. Finalizando este periodo de flujo zonal, el día 7, al paso de una depresión por el Golfo de Bizkaia, se alcanzan las rachas más altas del mes, huracanadas en numerosas estaciones (Cerroja 165.2 km/h, Zizurkil 136.4 km/h, La Garbea 136.1 km/h). Después se instalan vientos flojos del NE o de régimen variable debido a altas presiones sobre el continente y pantanos barométricos, respectivamente. A lo largo del último tercio del mes el predominio es para la componente norte, intensa los días 19 y 20, con la entrada de la masa de aire polar (Orduña 136.8 km/h, Cerroja 124.6 km, Zarautz 121.3 km/h).

Las lluvias del frente cálido del día 23, junto con el deshielo de parte de la nieve acumulada los días anteriores, elevan rápidamente el caudal de los ríos. Los aforos del Kadagua en Balmaseda, Aranguren y Sodupe superan el nivel de inundación, al igual que la estación de Sodupe, en el río Herrerías, afluente del anterior. En Gipuzkoa, las estaciones de Alegia y Lasarte en el Oria, Ibai Eder en el Urola y Oñati en el Deba llegan al nivel de alerta. También lo hace la estación de Abetxuko este día y el siguiente, como respuesta a la apertura de compuertas del pantano de Ullibarri.

MARTXOA

Hilaren 7an eta 8an, Bizkaiko Golkoan zegoen depresiogune batek ipar-mendebaldeko haizea bidali zigun lehenengo eta Azoreetako antizikloiak iparraldekoa ondoren; aire masa heze bat sartu zitzaigun eta euritea eragin zuen, batez ere Gipuzkoan. Bigarren astean, Ozeano Atlantikoan zegoen antizikloi indartsu baten eta Eskandinavian zegoen depresiogune sakon baten artean iparreko fluxu indartsu bat sortu zen; beste aire masa hotz eta heze bat sartu zen EAEan. Ondoren, fronte epel bat pasa zen eta tenperaturak gora egin zuen. Hala ere, euria etengabe egiten jarraitu zuen eta litro asko pilatu zen. Martxoko azken egunetan ere ezegonkortasuna izan zen nagusi.

Martxoa, hilabete oso hezea izan zen, eta izugarri hezea Deba Garaia, Arabako Lautada eta Arabar Errioxako eskualdeetan. Lurralde ia osoan, sasoi honetan ohikoa izaten den euri kopuruaren bikoitza egin zuen (Leitzaranean 496 mm, Berastegin 408 mm, Arrasaten 375 mm jaso ziren). Esaterako, Paganosen 126 mm jaso ziren, eta orain arte martxoan inoiz ez da hainbeste jaso izan. 24 orduetan euri gehien jaso zen estazioa Leitzarangoa izan zen, 136,3 mm hilaren 8an. Hilaren 19tik hilaren 22ra bitartean zaparrada trumoitsoak bota zituen eta barnealdean egunero pilatu zen prezipitazio kopurua oso ugaria izan zen; gainera elur-maila 200 m-ra jaitsi zen.

Temperaturari dagokionez martxoa hilabete normala izan zen. Hilabeteko batez bestekoa 11 °C ingurukoa izan zen kostaldean eta 7 °C ingurukoa Arabako Lautadan. Hilabetea giro epelarekin hasi zen. Hilaren 4an, Foehn efektuagatik, kostaldean tenperatura 18 °C-ra iritsi zen. Martxoko bigarren astean Europa Erdialdean gunea zuen antizikloi baten eraginpean egon ginen eta tenperatura baxuak neurtu ziren, bereziki minimoak (Herreran -4,8 °C eta Navarreten -4,3 °C). Hala ere, egunik hotzenak, elurra egin zuenekoak izan ziren; Arabako Lautadan, 20an eta 21ean eguneko batez bestekoa 0 °C ingurukoa izan zen.

Martxoko lehen astean mendebaldeko haizea bizia izan zen nagusi. Hilaren 4an galerna gogor bat jazo genuen. Hilaren 7an, mendebaldeko fluxua are gehiago indartu zen, Bizkaiko Golkotik depresiogune bat pasatu zenean. Orduan neurtu ziren hileko haize-bolada zakarrenak, (Cerrojan 165,2 km/h, Zizurkilen 136,4 km/h, eta La Garbean 136,1 km/h). Bigarren astetik aurrera, egoera antiziklonikoa eta aintzira barometrikoa izan genituen; hau da, ipar-ekialdeko haizea ahula eta norabide aldakorrekoa ibili ziren. Hirugarren astean, iparraldeko haizea sartu zen, eta bereziki zakar ibili zen hilaren 19an eta 20an, poloetako aire masa hotza sartu zenean (Orduñan 136,8 km/h, Cerrojan 124,6 km/h, eta Zarautzen 121,3 km/h-ko haize-boladak neurtu ziren).

Hilaren 23an ibaien emaria nabarmen igo zen. Fronte bero bat sartu zen, eta euria egiteaz gain, aurreko egunetan pilatu zen elurra oso azkar urtu zen. Kadagua ibaian dauden Balmaseda, Aranguren eta Sodupeko estazioetan uholde-maila gaintu zen. Gauza bera gertatu zen Sodupeko estazioan, Herreria ibaian (Kadaguaren ibaiadarra). Gipuzkoan, Oria ibaian, Alegia eta Lasarteko estazioetan, Urola ibaian Ibai Eder estazioan, eta Deban Oñatiko estazioan alerta-maila gaintu zen. Hilaren 23an eta 24an, Abetxuko estazioan ere gauza bera gertatu zen, Ullibarriko urtegia ireki zutelako.

ABRIL

La situación sinóptica durante el mes de abril ha estado marcada por la presencia de altas presiones centradas en las inmediaciones de las Islas Británicas, extendidas ocasionalmente hacia el interior del continente, y embolsamientos de aire frío en altura, asociados a depresiones desprendidas sobre la Península Ibérica o en torno a ella. Esta configuración ha procurado un tiempo inestable, con frecuentes chubascos dispersos de carácter tormentoso, y nieblas y brumas persistentes, sobre todo en la costa. Entre la tercera y la cuarta semana se rompe momentáneamente esta pauta, al enlazar el anticiclón de las Azores con las altas presiones del continente europeo. La situación pasa a ser poco definida y tienen lugar entonces las temperaturas más elevadas.

Abril puede calificarse como un mes seco en las provincias litorales, y normal en Álava. El este de Gipuzkoa y los montes de la divisoria principal de aguas han sido las zonas más lluviosas, con cantidades próximas a los 150 mm. Destacan las escasas precipitaciones registradas en el Bilbao Metropolitano, por debajo de 80 mm. Los días de lluvia se han repartido entre las dos primeras semanas y la recta final del mes. Cabe mencionar las precipitaciones muy abundantes del día 2 al este del territorio (Leizaran 40 mm, Iturrieta 39 mm), y las del día 13 en Bizkaia (Bermeo 51 mm, Iurreta 42 mm).

A nivel térmico abril se ha comportado de manera muy cálida. La temperatura media en la costa se ha situado en los 14 °C, y en la Llanada Alavesa alrededor de los 11 °C, en general, más de 2 °C por encima de lo normal. Los días 23 y 24 los registros se disparan, debido a la entrada de una masa de aire tropical marítima y al efecto Foehn. En las provincias litorales, sobre todo en Bizkaia, numerosas estaciones superan los 30 °C (Sodupe-Herrerías 32.9 °C, Deusto 31.5 °C, Mungia y Alegia 31.4 °C). Ese último día los registros bajan rápidamente, casi 10 °C en poco más de una hora en la costa, tras el paso de una galerna de tipo frontal. Por otra parte, apenas se han registrado heladas, la última de ellas en Navarrete el día 9.

Han predominado los flujos del primer y segundo cuadrante, y el régimen local de viento debido a situaciones anticiclónicas con escaso gradiente de presión. La intensidad del viento ha sido floja y no se han producido episodios dignos de consideración. Tan sólo señalar el desarrollo de dos galernas de tipo frontal los días 24 y 30, de intensidad débil a moderada.

APIRILA

Apirilean, alde batetik Britainiar uharteen inguruan antizikloi bat egon zen ia geldikor eta noizbehinka antizikloi hau Europa barnealdera zabaldu zen. Bestalde, goi-geruzetan aire hotza maiz geratu zen isolatuta, eta aire masa hotzak askatutako depresioguneak izaten zituen Iberiar Penintsulan edo inguruan. Egoera sinoptiko hark ezegonkortasun handia sortu zuen. Sarritan zaparrada trumoitsuak izan ziren eta beste askotan lanbroa eta lainoa jaso gabe geratu zen, batez ere kostaldean. Hirugarren eta laugarren astean egoera sinoptiko hau hautsi egin zen eta Azoreetako antizikloia Europako antizikloiari lotuta geratu zen. Orduan jazo genituen hilabeteko tenperatura altuenak.

Apirila hilabete lehortzat jo dezakegu Gipuzkoan eta Bizkaian, eta normaltzat Araban. Gipuzkoa ekialdean eta isurialde-banalerroko mendi inguruetan egin zuen euri gehien, 150 mm inguru. Bilbo Handian jasotako prezipitazio kopurua oso eskasa izan zen, 80 mm inguru. Prezipitazio-egunak, batez ere lehen bi astetan eta hilabete amaieran izan ziren. Hilabete honetan nabarmentzeko bi egun euritsu izan ziren. Hilaren 2a lurraldearen ekialdean: Leitzaranean 40 mm eta Iturrietan 39 mm jaso ziren. Eta hilaren 13a Bizkaian: Bermeon 51 mm eta lurretan 42 mm jaso ziren.

Temperaturari dagokionez hilabete oso epela izan zen. Batez besteko tenperatura kostaldean 14 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 11 °C ingurukoa; orokorrean, ohiko batez bestekoa baino 2 °C altuagoa. Hilaren 23an eta 24an aire masa heze eta tropikal bat sartu zen hegoaldetik, Foehn efektua eman zen eta tenperatura asko igo zen. Gipuzkoa eta Bizkaiko estazio askotan 30 °C-ko muga gainditu zuen tenperaturak, batez ere Bizkaian (Sodupe-Herrerias 32,9 °C, Deusto 31,5 °C, eta Mungia eta Alegian 31,4 °C). Hilaren 24an, enbata frontal batek kostaldea zeharkatu zuen eta bat-batean, ordu bete eskasean, tenperatura 10 °C inguru jaitsi zen. Bestalde, apenas egin zuen izotzik; hilaren 9an Navarreten egin zuena izan zen azkena.

Ipar-ekialdeko eta hego-ekialdeko haizea nagusi izan ziren, eta noizbehinka tokian tokiko haizea, batez ere presio-gradienterik ez eta egoera antiziklonikoa nagusitu zen egunetan. Aipagarria den egoerarik ez zen eman, haizea ahul ibili baitzen egun gehienetan. Nabarmentzea merezi duten bi gertaera besterik ez; hilaren 24 eta 30ean jazo ziren enbata ahul-ertainak.

MAYO

Comienza mayo a nivel sinóptico con el progresivo desplazamiento hacia el Mediterráneo y relleno de una depresión aislada en altura, que deja un ambiente inestable. Sin embargo, el anticiclón de las Azores o un amplio cinturón de altas presiones subtropicales dominan la situación buena parte del mes. A partir de la cuarta semana vuelve la inestabilidad, debido a una depresión fría peninsular con flujo desprendido. El ambiente lluvioso persiste debido al paso de bajas presiones por el sur de las Islas Británicas.

Las precipitaciones registradas califican el mes de mayo como un mes húmedo, en general. Como de costumbre, los pluviómetros del este de Gipuzkoa y de los montes de la divisoria son los que más lluvia han recogido (Añarbe 211 mm, Leizaran 194 mm, Barazar 171 mm). Estos valores contrastan con los de la costa vizcaína, por debajo de 90 mm. A pesar del gran número de días de precipitación, especialmente en la segunda mitad de mayo, no existen episodios destacables. Por mencionar alguno, el día 20 se registran precipitaciones muy abundantes al oeste del territorio, con chubascos de moderados a fuertes (Espejo 59 mm, 37.1 mm/h; Cerroja 54 mm, 11.8 mm/h; Zambrana 35.8 mm, 16.7 mm/h).

En cuanto a las temperaturas, mayo puede calificarse como cálido. La temperatura media en la costa se ha situado próxima a los 16 °C, y en la Llanada Alavesa alrededor de los 13 °C. Como es habitual en esta época del año, han sido bastante frecuentes los cambios bruscos de temperatura, especialmente en el interior. Las mínimas se registran el día 2 (en Navarrete llega a helar, -1.1 °C). Las máximas llegan poco después, en la segunda semana, bajo la influencia del anticiclón peninsular. Así, los días 9 y 10 se superan los 30 °C en algunos puntos (Mungia 30.7 °C, Ordizia 30.4 °C, Alegia 30.2 °C). El mes se despide con temperaturas bastante frías debido a la entrada de una masa de aire polar.

Aunque con cierto predominio de la componente oeste, ha habido una gran variabilidad en la dirección del viento. En general, la intensidad del viento ha sido baja. Destacan las rachas muy fuertes del oeste el día 13, al paso de una borrasca por el Golfo de Bizkaia (Cerroja 111.2 km/h, Urkiola 109.8 km/h), y las de los días 27-28, con una componente meridiana acusada (Cerroja 109.8 km/h, La Garbea 102.6 km/h).

MAIATZA

Maiatza giro ezegonkorrekin hasi zen; goi-geruzetan isolatuta zegoen depresiogune bat betetzen hasi eta pixkanaka Mediterraneora mugitu zen lehen egunetan. Alabaina, maiatzeko gainontzeko egunetan Azoreetako antizikloiaren menpe edo latitude subtropikaletatik gure lurralderaino luzatu zen presio altuko gunea zabal baten eraginpean egon ginen. Laugarren astetik aurrera eguratsa ezegonkortu egin zen; goi-geruzetan aire hotza isolaturik zeraman eta Iberiar penintsulan gunea zuen depresiogune bati esker. Giro euritsuarekin amaitu zen hilabetea, depresiogune ezberdinak pasa baitziren Britainiar uharteen hegoaldeetik.

Prezipitazioari dagokionez, orokorrean maiatza hezea izan zen. Gure lurraldean ohi bezala, isuralde-banalerroko mendi inguruetan eta Gipuzkoa ekialdean jaso zen euri gehien (Añarben 211 mm, Leitzararen 194 mm, eta Barazarren 171 mm). Aldiz, Bizkaiko kostaldean 90 mm baino gutxiago jaso zen. Prezipitazio-egun ugari izan zen, batez ere bigarren hamabostaldian; hala ere, ez dago gertaera aipagarririk. Egun bat aipatzearren, hilaren 20an prezipitazioa oso ugaria izan zen lurraldearen mendebaldean eta zaparrada arin-ertainak bota zituen (Espejon 59 mm jaso ziren eta ordu betean 37,1 mm; Cerrojan 54 mm jaso ziren eta ordu betean 11,8 mm; azkenik Zambran 35,8 mm jaso ziren eta ordu betean 16,7 mm).

Temperaturari dagokionez, maiatza epela izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 16 °C-ra hurbildu zen eta Arabako Lautadan 13 °C ingurukoa izan zen. Urte sasoi honetan gertatu ohi den bezala, bat-bateko temperatura aldaketa asko gertatu ziren, batez ere barnealdean. Temperatura minimoak hilaren 2an neurtu ziren. Navarreten izotza egin zuen, -1,1 °C. Temperatura maximoak egun batzuk geroago neurtu ziren, bigarren astean, penintsulan gunea zuen antizikloi baten menpe geundenean. Gauzak horrela, hilaren 9an eta 10ean 30 °C-ko muga gainditu zen puntu batzutan (Mungian 30,7 °C, Ordizian 30,4 °C, eta Alegian 30,2 °C). Hilabete amaieran ipar-polotik zetorren aire masa hotz batek hartu zuen gure lurraldea eta temperatura baxua izan zen.

Hilabete honetan haizearen norabidea oso aldakorra izan zen, nahiz eta tarte batzutan mendebaldekoa nagusitu. Orokorrean haizea ahul ibili zen. Egun haizetsu batzuk aipatzearren: hilaren 13an, depresiogune bat pasa zen Bizkaiko Golkotik eta mendebaldeko haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (Cerrojan 111,2 km/h eta Urkiolan 109,8 km/h); hilaren 27an eta 28an hego-mendebaldeko haize zakarra ibili zen (Cerrojan 109,8 km/h eta La Garbean 102,6 km/h-ko haize-boladak neurtu ziren).

JUNIO

La situación sinóptica durante buena parte del mes de junio ha estado caracterizada por el asentamiento de altas presiones sobre el continente europeo, que han interrumpido la normal circulación del oeste de las depresiones atlánticas. Procedentes de esta corriente se han ido desprendiendo frecuentes depresiones frías, con tendencia a centrarse frente a la fachada peninsular occidental, penetrando posteriormente por el Golfo de Bizkaia. Esta configuración ha traído un ambiente caluroso e inestable, con el desarrollo de tormentas que han afectado al País Vasco. En el último tercio del mes el anticiclón atlántico asciende en latitud, hacia Groenlandia, sobre su flanco oriental se desliza una masa de aire polar que alcanza nuestro territorio, provocando un descenso acusado de la temperatura. La circulación zonal se va recuperando y el protagonismo pasa a ser del anticiclón de las Azores.

Junio puede calificarse en general como un mes seco. El interior de la vertiente cantábrica es la zona más deficitaria, ha llovido un 50-70 % de lo esperable. En la comarca de los Valles Alaveses la situación, sin embargo, llega a invertirse. De hecho, la estación de Espejo registra unos nada despreciables 95 mm. Algo más al norte, en la Cantábrica Alavesa o las Encartaciones apenas llegan a 30 mm. Esta irregularidad en el reparto de las precipitaciones es debida a los episodios de carácter convectivo que han ocurrido. Destaca el del día 9, en el que se producen chubascos muy fuertes en la estación de Añarbe (37.7 mm/h) y fuertes repartidos por todo el territorio (Espejo 25.3 mm/h, Oñati 23.1 mm/h), en ocasiones acompañados de granizo. También muy fuertes y con granizo, son los del día 13 en Espejo (34.6 mm/h).

En cuanto a las temperaturas, junio se ha comportado como un mes muy cálido. La media en la costa se ha situado por encima de los 19 °C, y en la Llanada Alavesa alrededor de los 17 °C, esto es, algo más de un grado por encima de lo normal. A pesar de esta calificación, se trata de uno de los junios menos cálidos del presente siglo. En la zona próxima al litoral las máximas tienen lugar entre los días 17 y 19 (La Peña 31 °C, Oleta 30.7 °C). En la estación de Deusto, durante las noches del 17 y 18 los registros no bajan de 20 °C. El mes se despide con los valores más elevados de temperatura, sobre todo en el interior (Zambrana 33 °C, Espejo 32.8 °C), debido al flujo del sur establecido por una borrasca al oeste de las Islas Británicas y la expansión de aire tropical continental con cierto pinzamiento hacia la Península Ibérica. Esta situación contrasta con la entrada de una masa de aire polar pocos días antes, la cual hace que el día 28 se registre las mínimas en buena parte del territorio.

El viento a lo largo del mes de junio ha sido, en general, flojo de dirección variable, con cierto predominio de la componente sur y régimen de brisas en la costa. A dicha componente se deben las intensidades más elevadas, en cualquier caso, de escasa consideración. Las rachas máximas se registran el día 14 (Orduña 115 km/h, Cerroja 90.7 km/h).

EKAINA

Ekaineko egunik gehienetan Europa osoa hartzen zuen presio altuko eremu zabal baten eraginpean egon ginen. Eremu antizikloi zabal hark, mendebaldetik ekialdera pasa ohi diren atlantiar depresioguneei bidea eragotzi zien. Hala ere, mendebaldeko zirkulaziotik gune hotzeko depresiogune batzuk askatu ziren; Iberiar penintsularen mendebaldean kokatu ziren lehenengo eta ondoren, Bizkaiko Golkotik barrena gure lurraldera sartu ziren. Konfigurazio sinoptiko hark giro bero eta ezegonkorra eragin zuen; gure lurraldean eragina izan zuten ekaitzak eratu ziren. Hilaren 20tik aurrera, Azoreetako antizikloia iparraldera mugitu zen, Groenlandiara; ekialdetik aire masa polar bat etorri zen gure lurraldera eta temperatura asko jaitsi zen. Azken egunetan zirkulazio zonala bere onera bueltatu zen eta berriro ere Azoreetako antizikloiak hartu zuen nagusitasuna.

Ekaina lehorra izan zen. Kantauri isurialdeko barnealdean, jasotako prezipitazio kopurua espero zena baino % 30-50 eskasagoa izan zen. Hala ere, Arabako bailaretan egoera erabat desberdina izan zen. Adibidez, Espejoko estazioan 95 mm jaso ziren. Pixka bat iparralderago, adibidez Araba iparraldean edo Enkarterrietako eskualdean, 30 mm baino ez ziren jaso. Prezipitazio banaketa honen irregulartasuna, egoera ezegonkorraren ondorioz izan genituen ekaitzek eragin zuten. Beste guztien gainera hilaren 9an gertatutakoa nabarmendu daiteke, Añarbeko estazioan zaparrada oso indartsuak eman ziren (37.7 mm/h) eta gainontzeko lekuetan zaparrada indartsuak (Espejo 25.3 mm/h, Oñati 23.1 mm/h) noiz edo noiz txingorrarekin batera. Hilaren 13an Espejon ere (34.6 mm/h) zaparrada oso indartsuak eta txingorra bota zituen.

Temperaturari dagokionez, ekaina oso epela izan zen. Hilabeteko batez bestekoa kostaldean 19 °C baino altuagoa izan zen eta Arabako Lautadan 17 °C ingurukoa; hau da, ohiko batez bestekoa baino gradu bat altuagoa izan zen. Dena den, mende honetako ekainak bakarrik hartzen baditugu kontuan, ez dago epelenean artean. Kostaldean temperatura maximoak 17an eta 19an neurtu ziren (La Peña 31 °C, Oleta 30.7 °C). Deustuko estazioan, 17ko eta 18ko gauetan, temperatura 20 °C-tik ez zen jaitsi. Hilabetea, balio maximoekin bukatu zen, batez ere barnealdean (Zambrana 33 °C, Espejo 32.8 °C). Beroa eragin zuena Britainiar uharteen mendebaldean kokatutako depresiogune bat izan zen; hegoaldeko fluxua ezarri zuen eta kontinenteko aire masa tropikala Iberiar Penintsulara hedatu zen. Egoera hau oso desberdina izan zen aurreko egunetan gertatutakoarekin konparatuz, aire masa polar bat sartu baitzen eta horren ondorioz, 28an lurraldeko toki askotan temperatura minimoak neurtu baitziren.

Haizea orokorrean ahula eta aldakorra izan zen, eta tarteka hegoaldekoa nagusitu zen. Kostaldean berriz, brisa izan zen nagusi. Haize-bolada indartsuenak hegoaldekoak izan ziren eta hilaren 14an neurtu ziren, aparteko balioetara iritsi gabe (Orduña 115 km/h, Cerroja 90.7 km/h).

JULIO

A nivel sinóptico durante los primeros días del mes de julio predomina el anticiclón de las Azores, entrando en cuña hacia el Mediterráneo, y la baja térmica peninsular. La circulación zonal hace llegar a nuestro territorio masas templadas del Atlántico, que mantienen un ambiente fresco, mientras que la cola de varios frentes y el flujo marítimo dejan jornadas con algo de lluvia, sobre todo en la vertiente cantábrica. Esta situación persiste casi dos semanas. Entonces, el anticiclón de las Azores se retira hacia el oeste y cede el protagonismo a una depresión atlántica, desprendida en altura, procurando un tiempo algo inestable. Dicha configuración se hace bastante estacionaria por el bloqueo de la dorsal anticiclónica que desde el norte de África se expande hacia centroeuropa. El flujo dominante del sur eleva las temperaturas. En la recta final del mes se restablece la circulación zonal y se vuelve a la situación inicial, aunque ahora la ausencia de frentes permite un tiempo más seco y soleado.

Julio puede calificarse, en general, como un mes muy seco. La vertiente mediterránea es la más deficitaria, con amplias zonas donde ha llovido menos del 10% de lo habitual. Hacia el litoral los porcentajes mejoran, aún así, sobrepasan escasamente el 50%. Los pluviómetros situados al noreste de Gipuzkoa son los que más agua han registrado (Añarbe 95 mm, Leizaran 63 mm, Oiartzun 60 mm). En el otro extremo, en Álava ninguno llega a 10 mm. Estas diferencias se hacen también patentes, como es de esperar, en el número de días de precipitación. Así, mientras en Oiartzun se contabilizan 15 días, repartidos a lo largo del mes hasta el día 23, en Párganos tan sólo 3 días. No se han producido tampoco intensidades de precipitación dignas de consideración.

En cuanto a las temperaturas, julio se ha comportado como un mes normal. La media en la costa se ha situado ligeramente por encima de los 20 °C, y en la Llanada Alavesa alrededor de los 19 °C, esto es, entre 0-0.5 °C por encima de lo normal. El día 15 se alcanzan temperaturas bastante elevadas en todo el territorio (Oiartzun y Alegia 36.8 °C, Espejo 36.2 °C, Sodupe 36.1 °C). Sin embargo, el paso de una galerna las descende rápidamente, hasta 15 °C. En el interior del territorio las máximas se registran el día 31, por el pinzamiento hacia la Península de aire muy cálido del norte de África (Subijana 38.5 °C, Espejo 37.4 °C, Orozko 36.9 °C). En el litoral, el viento de componente este no permite que suban demasiado las temperaturas este último día de julio.

Han predominado los vientos de dirección variable, con régimen de brisas en la costa. Las intensidades más elevadas, rachas del suroeste muy fuertes, tienen lugar el día 23, al paso de una depresión atlántica próxima a nuestras costas (Orduña 94.3 km/h, La Garbea 92.9 km/h, La Arboleda 88.2 km/h). Destaca también la galerna del día 15, de intensidad moderada, con la que se registran también rachas muy fuertes en el litoral (Zarautz 85.7 km/h, Almike 82.8 km/h, Jaizkibel 70.9 km/h).

UZTAILA

Hilabeteko lehen egunetan Azoreetako antizikloiaren eraginpean egon ginen; ziri moduan sartu zen Mediterraneorantz eta beroaren eraginez baxu termikoa sortu zen Iberiar Penintsulan. Zirkulazio zonalak Ozeano Atlantikotik aire masa epelak ekarri zituen eta giroa fresko mantendu zen. Gainera, fronte batzuen isatsek eta itsasoko fluxuak euri pixka bat utzi zuten, bereziki kantauri isurialdean. Egoera honek bi aste inguru iraun zuen. Orduan, Azoreetako antizikloia mendebaldera mugitu zen, Ozeano Atlantikoko depresiogune bati tokia utzi zion eta eguraldia ezegonkortu egin zen. Konfigurazio sinoptiko hau nahiko iraunkorra izan zen, izan ere Afrika iparraldetik Europa erdialderantz luzatzen zen dortsal antiziklonikoak blokeo egoera ezarri zuen. Gauzak horrela, hegoaldeko fluxua nagusitu zen eta tenperatura asko igo zen. Uztailaren bukaeran, hasierako zirkulazio zonalera bueltatu ginen, baina oraingoan frontierik ez zen hurbildu, eta giro lehorragoa eta eguzkitsuagoa izan genuen.

Uztaila orokorrean oso lehorra izan zen. Mediterranear isurialdean prezipitazio kopurua oso eskasa izan zen, leku askotan ohikoa izaten denaren %10a baino gutxiago jaso baitzen. Kostaldean ez zen hainbesteko ur eskasirik izan, dena den ohikoa izaten denaren %50a ozta-ozta gainditu zen. Gipuzkoako ipar-ekialdean dauden plubiometroek jaso zuten ur kopuru handiena (Añarbe 95 mm, Leitzaran 63 mm, Oiartzun 60 mm). Bestalde, Araban ez ziren iritsi 10 mm jasotzera. Prezipitazio-egunak ere oso desberdinak izan ziren alde batean eta bestean. Horrela, Oiartzunen 15 prezipitazio-egun zenbatu ziren hilaren 23ra arte, Paganosen ordea, 3 besterik ez hilabete osoan. Intentsitateei dagokienez, ez zen ezer aipagarririk gertatu.

Temperaturari dagokionez uztaila hilabete normala izan zen. Kostaldean batez bestekoa 20 °C baino pixka bat altuagoa izan zen eta 19 °C ingurukoa Arabako Lautadan; hau da, ohiko batez bestekoa baino 0-0.5 °C altuagoa. Uztailaren 15ean lurralde osoan tenperatura oso altuak neurtu ziren (Oiartzun eta Alegia 36.8 °C, Espejo 36.2 °C, Sodupe 36.1 °C). Hala ere, enbata batek kostaldea zeharkatu zuen egun berean eta bat-batean tenperatura 15 °C jaitsi zen. Barnealdean, maximoak hilaren 31n neurtu ziren, Afrika iparraldetik etorritako aire masa beroagatik (Subijana 38.5 °C, Espejo 37.4 °C, Orozko 36.9 °C). Kostaldean, ekialdeko haizeak azken egun honetan ez zion temperaturari igotzen utzi.

Haizearen norabidea oso aldakorra izan zen, kostaldean brisak nagusitu ziren. Hilaren 23an, kostaldetik gertu Ozeano Atlantikoko depresiogune bat pasatu zen eta ondorioz, haize-bolada indartsuenak egun honetan neurtu ziren, hego-mendebaldekoak (Orduña 94.3 km/h, La Garbea 92.9 km/h, La Arboleda 88.2 km/h). Aldi berean, hilaren 15eko enbata ertaina aipatu behar da, kostaldean haize-bolada oso indartsuak neurtu baitziren (Zarautz 85.7 km/h, Almike 82.8 km/h, Jaizkibel 70.9 km/h).

AGOSTO

A nivel sinóptico durante las tres primeras semanas del mes de agosto predomina el anticiclón de las Azores y la baja térmica peninsular. La cola de varios frentes y el flujo marítimo dejan jornadas poco soleadas, con algo de lluvia en la vertiente cantábrica. A partir del día 20 el anticiclón se retira hacia el oeste, permitiendo una circulación marcadamente meridiana sobre la Península. Una depresión fría aislada en altura se cuele desde Islandia hacia Francia. La acusada inestabilidad vertical da lugar a varios días de precipitaciones muy abundantes sobre la vertiente cantábrica. La situación evoluciona hacia un anticiclón británico y la depresión térmica norteafricana ascendiendo en latitud. El mes finaliza con flujo continental de carácter anticiclónico, que desciende rápidamente la temperatura.

Existen diferentes calificaciones para las precipitaciones del mes de agosto, desde muy húmedo en la vertiente cantábrica, hasta seco hacia el sur de Álava. En el noreste de Gipuzkoa se han registrado cantidades muy relevantes (Añarbe 452 mm, Oiartzun 348 mm). En el otro extremo, en el sur de los Valles Alaveses y en la Rioja Alavesa se han rondado los 15 mm. Los días de lluvia se han concentrado fundamentalmente a lo largo de la cuarta semana. Destacan sobre todo los días 21 y 23, con cantidades por encima de 80 mm en numerosas estaciones de la vertiente cantábrica (Añarbe 127 mm, Urkiola 89 mm el día 21; Añarbe 130 mm, Oiartzun 129 mm el día 23).

En cuanto a las temperaturas, agosto se ha comportado como un mes entre frío y normal. La media en la costa se ha situado entre los 20-21 °C, y en la Llanada Alavesa por encima de los 17 °C, unas pocas décimas por debajo de lo normal. Los episodios de calor se han espaciado regularmente a lo largo del mes y han sido de corta duración. El más importante se ha producido del 26 al 28. Este último día puede considerarse como el más caluroso del verano (Espejo 38.7 °C, Sodupe 38.2 °C). En la costa se superan los umbrales de temperaturas extremas (Lasarte 37.3 °C, Zarautz 35.2 °C). Además, numerosas estaciones registran una “noche tropical” (Párganos 21.4 °C, Zaratamo 20.7 °C, Amorebieta 20.4 °C). Sin embargo, las temperaturas mínimas caracterizan mejor este mes de agosto. Sirva de ejemplo que en Vitoria la media de las mínimas en la primera quincena es inferior a 10 °C.

Han predominado los vientos flojos de componente norte, en especial, aquellos traídos por la circulación zonal. Las mayores intensidades han tenido lugar en la segunda quincena, destacando las registradas entre la noche del 20 y la mañana del 21, debidas a la antes mencionada depresión fría (Orduña 103 km/h, Oiz 99.4 km/h). También se alcanzan rachas muy fuertes el día 26, esta vez de componente sur, al centrarse dicha depresión frente a las costas de Portugal (Orduña 99.4 km/h, Oiz 98.3 km/h).

Como respuesta hidrológica a las precipitaciones de la cuarta semana, los días 23 y 24 la lámina de agua en las estaciones de Ereñozu, en la cuenca del Urumea, y de Oiartzun, en la cuenca del mismo nombre, supera el nivel de inundación, llegando a unos valores máximos de 2.1 m y 2.2 m respectivamente.

ABUZZTUA

Lehenengo hiru astetan egoera sinoptikoa Azoreetako antizikloiaren eta Penintsulako baxu termikoaren menpe egon zen. Fronte batzuen isatsek eta itsasoko fluxuak egun hodeitsuak eta euri pixka bat utzi zituzten, bereziki Kantauri Isurialdean. Hilaren 20tik aurrera, antizikloia mendebalderantz mugitu eta iparraldeko fluxuari bidea utzi zion. Egoera honen baitan, goi-geruzetan depresiogune hotz bat askatu zen, Islandiatik Frantziara jaitsi eta ondorioz giroa ezegonkortu egin zen; egun batzutan euria erruz egin zuen kantauri isurialdean. Ondoren, egoera aldatu egin zen eta antizikloia Britainiar uharteetan kokatu zen, Afrika iparraldeko baxu termikoa latitudez igotzen zen bitartean. Hilabetea fluxu kontinentalarekin bukatu zen, antizikloiaren baitan, eta tenperaturak berehala egin zuen behera.

Prezipitazioari dagokionez, zonalde batzuetatik besteetara kalifikazioa aldatu egiten da. Kantauri isurialdean oso hezea izan zen eta Araba hegoaldean berriz lehorra. Aipatzekoa da Gipuzkoako ipar-ekialdean neurtu ziren balio altuak (Añarbe 452 mm, Oiartzun 348 mm). Bestalde, Arabako Lautadaren hegoaldean eta Arabar Errioxan 15 mm inguru neurtu ziren. Euria batez ere laugarren astean egin zuen. Aipagarria, hilaren 21ean eta 23an jasotako ur kopurua, 80 mm baino gehiago jaso ziren kantauri isurialdeko estazio askotan (21ean 127 mm Añarben eta 89 mm Urkiolan; 23an 130 mm Añarben eta 129 mm Oiartzunen).

Temperaturari dagokionez, abuztua hilabete hotza eta normala bitartean egon zen. Kostaldean batez bestekoa 20-21 °C inguruan kokatu zen eta Arabako lautadan 17 °C-tik gora, ohikoa baino hamarren batzuk beherago. Bero-gertaerak nahiko erregularri banatu ziren hilabete osoan zehar eta denbora gutxi iraun zuten. Garrantzitsuen 26tik 28ra gertatu zen, azken egun hau udako egunik beroena izan zen (Espejo 38,7 °C, Sodupe 38,2 °C). Kostaldean muturreko tenperaturen mugak gairitu ziren (Lasarte 37,3 °C, Zarautz 35,2 °C). Gainera, estazio askotan neurtutako tenperatura minimoak aztertuz gero "gau tropikala" izan genuela esan dezakegu (Paganos 21,4 °C, Zaratamo 20,7 °C, Amorebieta 20,4 °C). Hala ere, tenperatura minimoen analisiak esaten digu abuztua nolakoa izan zen. Ikusi besterik ez dago hurrengo datu hau: Gasteizen lehenengo hamabostaldiko tenperatura minimoen batez bestekoa 10 °C baino baxuagoa izan zen.

Iparaldeko haizea nagusitu zen, bereziki zirkulazio zonalaren ondorioz. Indarrari dagokionez, haize-bolada garrantzitsuenak bigarren hamabostaldian eman ziren. Hilaren 20ko gauean eta 21eko goizean neurtu zirenak nabarmendu ditzakegu, lehen aipaturiko depresio hotzak eragin zituenak (Orduña 103 km/h, Oiz 99,4 km/h). Hilaren 26an ere bolada oso indartsuak neurtu ziren, oraingoan hegoaldeko boladak, depresioa Portugalgo kostaldean kokatu baitzen (Orduña 99,4 km/h, Oiz 98,3 km/h).

Laugarren astean izan genuen prezipitazioaren ondorioz, 23an eta 24an Ereñozun, Urumea arroan, eta Oiartzunen, izen berbera duen arroan, urak uholde-maila gairitu zuen, eta balio maximoak 2,1 m eta 2,2 m-tara iritsi ziren hurrenez hurren.

SEPTIEMBRE

El día 4 la cola de un frente frío deja precipitaciones poco abundantes sobre la vertiente cantábrica. Esta es la excepción a una primera quincena de tiempo estable y bastante soleado, sobre todo en el interior, algo más nublado y brumoso en la costa. Como ocurre en ocasiones, con el eje horizontal del anticiclón situado en altas latitudes, una borrasca es desplazada por la circulación del oeste hacia el Golfo de Cádiz, donde se hace bastante estacionaria. Vencida la primera mitad del mes, líneas de inestabilidad asociadas a dicha borrasca alcanzan el País Vasco y provocan chubascos tormentosos. Durante la última semana el anticiclón de las Azores se dispone verticalmente, alrededor del meridiano 10° W, estableciendo un marcado flujo del norte sobre el Cantábrico oriental. El ambiente en la vertiente cantábrica es lluvioso, en especial el día 27, bajo la influencia de una depresión fría desprendida que se descuelga por el flanco oriental del alta.

Existe una transición en la calificación de las precipitaciones del mes de septiembre, de normal en la vertiente cantábrica a seco en la mitad sur de Álava. Efectivamente, el territorio alavés es el más deficitario. Al sur del mismo ha llovido menos del 50% de lo habitual. Las cantidades más importantes se han registrado en el noreste de Gipuzkoa, con otro máximo secundario en los montes de la divisoria de aguas (Añarbe 134 mm, Oiartzun 130 mm, Barazar 119 mm). En el otro extremo, en la Rioja Alavesa apenas se superan los 10 mm. Los días de lluvia se han concentrado básicamente en la segunda quincena. No ha habido acumulados diarios ni intensidades relevantes. Por señalar algo, los días 16 a 18 se producen chubascos tormentosos moderados, localmente fuertes y acompañados de granizo (Lasarte 19.3 mm/h, Zizurkil 17 mm/h el día 17).

Las temperaturas se han comportado de manera fría en la vertiente cantábrica y normal en la mediterránea. La media en la costa se ha situado en torno a los 18 °C, aproximadamente 1 °C por debajo de lo normal; y en la Llanada Alavesa entre 15-16 °C, unas pocas décimas por debajo también de lo normal. En relación a los últimos años, se trata de uno de los septiembrés más fríos, 3 °C menos de diferencia en las temperaturas medias que el muy cálido septiembre de 2006. Durante la primera quincena las temperaturas se han mantenido estacionarias, en valores bastante templados, mientras que en la segunda han mostrado mayor variabilidad. El día 16 ha sido el más caluroso en todo el territorio, con valores por encima de 32 °C en puntos del interior de la vertiente cantábrica, debido al viento sur procedente de la baja peninsular. Durante la última semana la advección del norte proporciona el ambiente más frío. Así, el día 28 se registra la primera helada de la temporada (Navarrete -0.3 °C).

Durante la primera quincena han predominado los vientos de componente E, enviados por el borde inferior del anticiclón británico-europeo. En la segunda, han sido más variables, mandando los del N la última semana. No se han dado episodios de viento especialmente intenso. Por destacar alguno, señalar las rachas muy fuertes causadas por la advección del N durante el día 27 (Herrera 80.6 km/h, Orduña 76.7 km/h), o de manera más puntual, las registradas en áreas de tormenta la noche del 16 (Orduña 82.1 km/h, Oiz 69.8 km/h).

IRAILA

Irailaren 4an fronte hotz baten isatsak euri pixka bat utzi zuen kantauri isurialdean. Hau izan zen salbuespen bakarra lehenengo hamabostaldi egonkor eta eguzkitsu batean, batez ere barnealdean; apur bat hodeitsuago eta lanbrotsuago egon zen kostaldean. Batzutan gertatzen den bezala, antizikloiaren ardatz horizontala goi-latitudeetan kokatu zen eta mendebaldeko zirkulazioa zela medio, depresiogune bat Cadiz-eko Golkoan kokatu zen; nahiko geldikor egon zen, gainera. Bigarren hamabostaldian, depresiogune horri loturiko ezegonkortasun lerroak Euskal Herrira heldu ziren eta zaparrada trumoitsuak bota zituzten. Azkeneko astean, Azoreetako antizikloia bertikalki kokatu zen, mendebaldeko 10° meridioaren inguruan eta iparraldeko fluxu argi bat ezarri zen kantauri isurialdeko ekialdean. Horrela, kantauri isurialdeko giroa euritsua izan zen, 27an bereziki, antizikloiaren ekialdetik askatutako depresiogune hotz baten eraginez.

Prezipitazioari dagokionez, hilabete normaltzat jo daiteke kostaldean, eta lehortzat Araba hegoaldean. Araban jasotako prezipitazio kopurua oso eskasa izan zen, esate baterako hegoaldean ohi dena baino % 50 gutxiago jaso zen. Gipuzkoako ipar-ekialdean jaso zen prezipitazio gehien, eta ondoren isurialde-banalerroko mendietan (Añarbe 134 mm, Oiartzun 130 mm, Barazar 119 mm). Beste muturrean aldiz, Arabar Errioxa, 10 mm besterik ez baitziren jaso. Prezipitazio-egunak, batez ere bigarren hamabostaldian izan ziren. Egun batean pilatutako prezipitazio kopuruak edo intentsitateak ez ziren garrantzitsuak izan. Zerbait aipatzekotan, hilaren 16tik 18ra izan genituen zaparrada trumoitsu ertainak aipatu daitezke, zenbait lekutan gogorrak izan ziren eta txingorra bota zuen (17an: Lasarte 19.3 mm/h, Zizurkil 17 mm/h).

Temperaturari dagokionez, iraila hilabete hotza izan zen kantauri isurialdean, baina Mediterranean isurialdean normala. Kostaldean batez bestekoa 18 °C ingurukoa izan zen, ohikoa baino 1 °C baxuagoa; Arabako Lautadan 15-16 °C ingurukoa, ohikoa baino hamarren bat edo beste baxuagoa. Aurreko urteekin konparatuz, iraila hotzeneren artean aurkitzen da; esate baterako oso beroa izan zen 2006ko iraila baino 3 °C baxuago geratu zen batez besteko tenperatura. Lehenengo hamabostaldian tenperatura egonkor mantendu zen, nahiko epel, bigarren hamabostaldian ordea, askoz aldakorrago. Hilaren 16a, hileko egunik beroena izan zen lurralde osoan, Iberiar Penintsulan eratutako depresioguneak eragindako hegoaldeko haizeagatik; kantauri isurialdeko barnealdean 32 °C-ko balioa gainditu zen. Azkeneko astean, iparraldeko adbekzioak giro hotzagoa ekarri zuen. Hori dela eta, hilaren 28an denboraldiko lehen izoztea eman zen (Navarrete -0.3 °C).

Lehenen hamabostaldian ekialdeko haizea nagusitu zen; Britainiar-Europar antizikloiak eragin zuen. Bigarrenegun berriz, norabide aldakorreko haizea ibili zen eta azkeneko astean iparraldekoa. Aipagarria den egoerarik ez zen eman, haizea ahul ibili baitzen egun gehienetan. Zerbait nabarmentzekotan, hilaren 27an neurtutako haize-bolada zakarrak, iparraldeko adbekzioak eragindakoak (Herrera 80.6 km/h, Orduña 76.7 km/h). Aipatu daitezke baita ere 16ko gauean puntualki neurtu ziren haize-boladak, ekaitzei loturikoak (Orduña 82.1 km/h, Oiz 69.8 km/h).

OCTUBRE

Comienza el mes de octubre con una depresión a todos los niveles situada al oeste de la Península Ibérica, generando un flujo de componente sur durante los primeros dos días, aunque esta no va a ser la tónica general del mes. Un frente estacionario asociado a esa depresión se sitúa en las inmediaciones del País Vasco, dejando algunas precipitaciones, que no son importantes hasta el día 5, cuando se producen precipitaciones persistentes y moderadas, acumulándose cantidades cercanas o superiores a 60 mm en la vertiente cantábrica. Esta situación es originada por una depresión aislada en niveles altos que se sitúa en Cataluña, mientras que en superficie la situación es poco definida, con un ligero flujo de componente norte. A partir de ahí, la situación sinóptica viene determinada por las altas presiones que se sitúan en las Islas Británicas, extendiéndose por amplias zonas de Europa Occidental, ocupando a partir del día 20 todo el norte de Europa, por lo que la situación presenta claros síntomas de bloqueo, con movimiento retrógrado sobre la mayor parte de Europa. Así, el día 10 nos afecta un embolsamiento de aire frío en altura, con vientos en superficie del norte y del nordeste, dejando precipitaciones significativas en la vertiente cantábrica. El día 23 una perturbación consigue llegar hasta la Península Ibérica desde el oeste, uniéndose con una depresión aislada en niveles altos que se va desplazando por el Mediterráneo con movimiento retrógrado. Esta situación vuelve a producir nuevas precipitaciones. El mes se despide con la llegada de un frente frío por el oeste, con el anticiclón atlántico desplazándose hacia el este e impulsando en su desplazamiento vientos del norte y precipitaciones.

Las precipitaciones registradas califican el mes de octubre como normal aunque, en general, por debajo de la media, especialmente en Bizkaia. Como es habitual, la zona más lluviosa se encuentra en el noreste de Gipuzkoa, con otro máximo secundario en los montes de la divisoria de aguas (Añarbe 190 mm, Leizaran y Berastegi 172 mm, Barazar 131 mm), y la menos húmeda en la Rioja Alavesa, con unos nada despreciables 41 mm en Párganos. Los días de lluvia se han concentrado en los extremos del mes. El día 5 ha sido el más lluvioso con diferencia, acumulándose más de 60 mm en puntos próximos al litoral de Gipuzkoa (Jaizkibel 77 mm, Oiartzun 74 mm, Zarautz 69 mm).

Las temperaturas se han comportado de manera fría en la vertiente cantábrica y normal en la mediterránea. La media en la costa se ha situado en torno a los 15 °C, y a los 12 °C en la Llanada Alavesa, valores muy próximos a lo normal. En relación a los últimos años, este octubre es el más fresco, junto con el del 2003. La causa hay que buscarla en la ausencia de vientos del sur, bastante frecuentes en esta época del año. Los valores máximos absolutos se han registrado el día 2, superando los 25 °C en muchos puntos (Oiartzun 27,7 °C; Subijana 27,6 °C; Zarautz 26 °C). Se han registrado dos días de helada en la Llanada Alavesa, y hasta 5 en Navarrete.

La intensidad del viento no ha sido destacable y la dirección predominante ha sido la componente norte, sobre todo el nordeste, contabilizándose tan sólo dos días de viento sur.

URRIA

Urria, Iberiar Penintsulako mendebaldean kokaturiko depresioegune batekin hasi zen, lehenengo bi egunetan hegoaldeko haizea ibili zen, baina ez zen hori izan hilabeteko joera nagusia. EAE-tik gertu, fronte geldikor bat kokatu zen, garrantzi gutxiko prezipitazioak utzi zituen hilaren 5era arte. Egun horretan ordea, prezipitazio ertain iraunkorra egin zuen eta kantauri isurialdean 60 mm inguru pilatu zen. Egoera hau, Katalunia parean, goi-geruzetan kokaturiko depresioegune isolatu batek sortu zuen. Lurrazalean egoera ez zegoen oso definitua, ipar ukitua zuen haizeak. Handik aurrera, Britainiar uharteetan kokatu zen antizikloiaren menpe geratu ginen; antizikloia Europa mendebalderantz zabaldu zen eta hilaren 20tik aurrera Europako iparralde osoa hartu zuen bere baitan. Ondorioz, blokeo egoera bat sortu zen ia Europa osoan eta ekialdeko zirkulazioa nagusitu zen. Egoera sinoptiko honetan, hilaren 10ean goi-geruzetan aire hotza askatu zen; azalean ipar eta ipar-ekialdeko haizea zebilen eta kantauri isurialdean euria erruz egin zuen. Hilaren 23an perturbazio bat heldu zen mendebaldetik Iberiar Penintsularaino eta Mediterraneoan barrena altueran mendebaldetik ekialderantz zetorren beste depresioegune isolatu batekin elkartu zen. Horrela, berriro euria egin zuen. Urriaren bukaeran mendebaldetik fronte hotz bat sartu zen eta Ozeano Atlantikoko antizikloia ekialderantz mugitu zen; iparraldeko haizea eragin zuen eta euria utzi zigun.

Hilabete osoan jaso zen prezipitazioa kontuan hartuz, urria normaltzat jo daiteke, baina orokorrean, batez bestekoaren azpitik geratu zen, Bizkaian bereziki. Ohikoa den bezala, Gipuzkoako ipar-ekialdea izan zen prezipitazio gehien jaso zuen zonaldea eta ondoren isurialde-banalerroko mendiak (Añarbe 190 mm, Leitzaran eta Berastegi 172 mm, Barazar 131 mm). Prezipitazio gutxiena Arabar Errioxan jaso zen, Paganosen 41 mm, dena den, kontutan hartzeko moduko kantitatea da. Prezipitazio-egunak, batez ere lehenengo eta azkeneko egunetan izan ziren. Hilaren 5a izan zen euritsuena. Horren lekuko Gipuzkoako kostaldetik gertu jaso ziren kantitateak; 60 mm baino gehiago (Jaizkibel 77 mm, Oiartzun 74 mm, Zarautz 69 mm).

Urria, tenperaturari dagokionez kantauri isurialdean hotza eta Mediterranean isurialdean normala izan zen. Kostaldean batez bestekoa 15 °C ingurukoa izan zen eta 12 °C ingurukoa Arabako Lautadan. Aurreko urteekin konparatuz, hilabete hau eta 2003koa izan ziren hotzenak. Urte sasoi honetan ohikoa izaten den hegoaldeko haizea ez zen ibili; honek azaltzen du, beraz, egoera hau. Temperatura maximo absolutuak aztertzen baditugu, altuenak hilaren 2an neurtu ziren, leku askotan 25 °C gainditu ziren: Oiartzunen 27,7 °C, Subijanan 27,6 °C, eta Zarautzen 26 °C. Arabako Lautadan bi izozte-egun izan ziren eta bost Navarreten.

Haizearen indarra ez zen oso nabarmena izan eta iparraldeko haizea nagusitu zen, batez ere ipar-ekialdekoa. Hego-haizeko bi egun besterik ez ziren zenbatu.

NOVIEMBRE

Durante la primera quincena la situación sinóptica se ha caracterizado por el predominio de altas presiones atlánticas, centradas en las proximidades de las Islas Británicas, y extendidas sobre el continente europeo. Dicha configuración ha procurado un tiempo frío y seco, bastante soleado durante la segunda semana, al abarcar el anticiclón de manera más clara la Península Ibérica, mientras cambiaba su eje horizontal a vertical. Como es habitual en estas situaciones de bloqueo, una depresión penetra por el flanco oriental del alta, enviando hacia el Mediterráneo occidental una masa de origen polar continental. El paso de un frente frío asociado a dicha depresión deja precipitaciones abundantes en la vertiente cantábrica, pero lo más relevante es el descenso acusado de las temperaturas mínimas. La situación evoluciona hacia una depresión atlántica, centrada al SW de las Islas Británicas y circulación aislada en altura, que recupera rápidamente las temperaturas. Varios frentes asociados a la misma y el posterior flujo del norte establecido por el anticiclón de las Azores proporcionan varios días de lluvia, sobre todo en la vertiente cantábrica. El mes finaliza con circulación zonal y tiempo seco por la ausencia de frentes.

Las precipitaciones registradas califican este mes como muy seco. En prácticamente todo el territorio ha llovido menos de la mitad de la media. Los valores más altos se localizan en el interior de Bizkaia (Barazar y Mungia 84 mm, La Garbea 83 mm), mientras que los más bajos se encuentran en la Llanada y Rioja Alavesa (Arkaute 17 mm, Salvatierra 18 mm, Páganos 16 mm). Los días de lluvia se han concentrado básicamente en la tercera y la cuarta semana, con acumulados diarios poco importantes.

En cuanto a las temperaturas, noviembre puede calificarse como un mes muy frío en la vertiente cantábrica y frío en la mediterránea. La media en la costa se ha situado en torno a los 10 °C, hasta 2 °C por debajo de lo normal; y a los 7 °C en la Llanada Alavesa, más próxima a lo habitual. Se trata del noviembre más frío de los últimos años, y contrasta sobremanera con el extremadamente cálido del año pasado. Durante la primera quincena del mes las temperaturas se han mantenido en valores fríos bastante constantes. Los días 15 a 18 las heladas se extienden por casi todo el territorio, moderadas en el interior de Álava, debido a la entrada de una masa de aire polar continental. Las mínimas absolutas se han registrado el día 17 (Salvatierra -9.5 °C, Arkaute y Altube -8.5 °C). Las máximas absolutas han llegado poco después en la vertiente cantábrica, por la advección del suroeste. Así, el día 20 se rondan los 20 °C en el litoral (Oleta y Berriatua 20.1 °C, Oiartzun y Ereñozu 19.8 °C).

Ha predominado el viento flojo de componente norte, en especial flujos continentales. Las rachas más altas, no obstante, se corresponden a viento del suroeste establecidas por una borrasca atlántica. Así, los días 19 y 20, prácticamente los únicos con componente sur en todo el mes, se registran valores algo por encima de los 100 km/h en zonas de montaña (Jaizkibel 110.5 km/h, Oiz 104.8 km/h, La Garbea 100.4 km/h) y de 80 km/h en zonas no expuestas (Berastegi 85 km/h, Zegama 82 km/h, Arrasate 81 km/h).

AZAROA

Lehenengo hamabostaldian presio altuen menpe egon ginen; antizikloi bat Britainiar uharteren inguruan zegoen kokatuta eta Europa barnealdera zabaltzen zen. Egoera hori zela medio, eguraldi hotza eta lehorra izan genuen; nahiko eguzkitsua bigarren astean, antizikloiak Iberiar Penintsula garbiago hartu baitzuen bere baitan. Antizikloiaren ardatza horizontala izatetik bertikala izatera pasa zen. Blokeo egoeretan askotan gertatzen den bezala, antizikloiaren ekialdetik depresiogune bat sartu zen eta aire masa kontinental-polarra bultzatu zuen Mediterraneo mendebaldera. Gainera, depresio honi loturiko fronte hotz bat pasatu zen eta kantauri isurialdean prezipitazio ugari utzi zuen, baina dena den, nabarmenena tenperatura minimoen beherakada handia izan zen. Goi-geruzetan isolatutako zirkulazio batean bilakatu zen egoera; Atlantikoko depresiogunea Britainiar uharteren hego-mendebaldean kokatu zen eta tenperatura igo egin zen. Depresio honi loturiko fronte batzuk eta gerora Azoreetako antizikloiak eragindako iparraldeko fluxuak euria ekarri zuten, bereziki kantauri isurialdera. Azaroa zirkulazio zonalarekin bukatu zen, baina euririk gabe, ez baitziren fronteak gure lurraldera iritsi.

Hilabete osoan jaso zen prezipitazioa kontuan hartuz, hilabetea oso lehortzat jo dezakegu. Lurralde ia osoan, sasoi honetan ohikoa izaten den euri kopuruaren erdia baino gutxiago egin zuen. Prezipitazio gehien Bizkaiko barnealdean jaso zen (Barazar eta Mungia 84 mm, La Garbea 83 mm). Arabako Lautadan eta Arabar Errioxan berriz, prezipitazio gutxien (Arkaute 17 mm, Salvatierra 18 mm, Páganos 16 mm). Prezipitazio-egunak batez ere hirugarren eta laugarren astean zenbatu ziren, baina egunero pilatutako kantitateek ez zuten garrantzi handirik izan.

Temperaturari dagokionez, azaroa kantauri isurialdean oso hotza izan zen eta Mediterranean isurialdean hotza. Batez besteko tenperatura kostaldean 10 °C ingurukoa izan zen, ohiko batez bestekoa baino 2 °C baxuagoa; Arabako Lautadan batez bestekoa 7 °C ingurukoa izan zen, balio normaletatik hurbilago. Horregatik, hilabete hau azken urteetako azaro hotzenen artean kokatu zen. Aurreko urteko azaro izugarri beroarekin konparatzen badugu egoera oso desberdina jazo genuen. Hilaren lehenengo hamabostaldian tenperatura hotzak neurtu ziren eta apenas eman zen aldaketarik. Hilaren 15etik 18ra kontinenteko aire masa hotz bat sartu zen eta izozteak ia lurralde osora zabaldu ziren, Arabako barnealdean ertainak izan ziren. Hilaren 17an neurtu ziren minimo absolutuak (Salvatierra -9.5 °C, Arkaute eta Altube -8.5 °C). Handik gutxira, kantauri isurialdean maximoak neurtu ziren, hego-mendebaldeko adbekezioa zela medio. Horrela, hilaren 20an kostaldean tenperaturak 20 °C ingurukoak izan ziren (Oleta eta Berriatua 20.1 °C, Oiartzun eta Ereñozu 19.8 °C).

Iparraldeko haize ahula nagusitu zen, kontinenteko fluxua bereziki. Haize-bolada maximoak ordea, hego-mendebaldekoak izan ziren, Atlantikoko depresiogune batek eragindakoak. Horrela, hilaren 19an eta 20an, haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten mendietan (Jaizkibel 110.5 km/h, Oiz 104.8 km/h, La Garbea 100.4 km/h) eta 80 km/h-ko abiadura haizeguneak ez diren lekuetan (Berastegi 85 km/h, Zegama 82 km/h, Arrasate 81 km/h), egun hauek izan ziren ia hilabete osoko hego-haize egun bakarrak.

DICIEMBRE

Comienza diciembre con altas presiones subtropicales centradas sobre las Azores y una intensa circulación del oeste, que genera una persistente mar muy gruesa y varios días de precipitaciones débiles. El día 9 el anticiclón atlántico comienza a ascender en latitud, de manera que la circulación sobre la Península es marcadamente meridiana. El carácter húmedo del flujo marítimo deja las precipitaciones más abundantes del mes. Las altas presiones acaban asentándose sobre el continente y el tiempo pasa a ser frío y seco. La situación evoluciona hacia un tipo de circulación retrógrada. Así, un embolsamiento de aire frío en altura cruza el norte peninsular desde el este, dejando precipitaciones débiles en el sur de Álava entre los días 17 y 18, en forma de nieve por encima de los 500 m. Dicho embolsamiento termina por unirse a otra masa de aire desprendida centrada en el Golfo de Cádiz y con reflejo en superficie. Entre esta depresión y el anticiclón centroeuropeo se establece sobre la Península un fuerte flujo de componente sur, que recupera las temperaturas. En la recta final del mes la situación sinóptica vuelve a estar dominada por el anticiclón centroeuropeo, que bloquea la entrada de borrascas y sistemas frontales.

El mes de diciembre puede clasificarse como seco. En Álava ha llovido menos de la mitad de lo normal. Al norte de la divisoria, los porcentajes mejoran, sobre todo en Gipuzkoa, aunque siempre por debajo de la media. Los valores más altos se localizan en el interior de dicho Territorio Histórico (Añarbe 177 mm, Leizaran 152 mm, Lasarte 139 mm). En las comarcas del Ebro las estaciones han recogido cantidades muy exiguas para esta época del año (Zambrana 9 mm, Párganos 12 mm). Los días de lluvia se han concentrado fundamentalmente en la primera quincena, destacando el 10 como la jornada más lluviosa, sobre todo en Gipuzkoa, que registra acumulados muy abundantes (Añarbe 55 mm, Aitzu 52 mm). Viene precedido por un día también bastante lluvioso en la costa (Bermeo 31 mm, Oiartzun 25 mm).

En cuanto a las temperaturas, diciembre ha sido un mes frío. Los valores se sitúan aproximadamente 0.5 °C por debajo de la media, entre 9-10 °C en la costa y 4-5 °C en la Llanada Alavesa. La circulación zonal del primer tercio recupera en cierta medida las temperaturas. Se han contabilizado un gran número de días de helada. Del 12 al 17 éstas se extienden por casi todo el territorio, moderadas en el interior de Álava. Este último día llegan a fuertes en la Montaña Alavesa y representan la mínima absoluta del mes (Navarrete -10.1 °C, Salvatierra -8.5 °C, Arkaute -8.1 °C).

Ha sido un mes de vientos variables debido a las diversas configuraciones sinópticas que se han dado. Durante el primer tercio del mes ha predominado el flujo zonal, registrándose prácticamente todos los días rachas de viento muy fuertes en zonas expuestas. Destacan las del día 9, con valores superiores a 100 km/h en zonas de montaña y del litoral (Jaizkibel 117.7 km/h, Bermeo 112.7 km/h). Del 18 al 21 es también un periodo de vientos intensos, en este caso de componente sur, debido a una borrasca situada frente a las costas de Portugal. De hecho, los registros más altos del mes tienen lugar el día 20 (Orduña 148 km/h, Oiz 126 km/h).

ABENDUA

Abendu hasieran, Azoreetan kokaturiko antizikloi subtropikalaren menpe egon ginen, mendebaldeko zirkulazio baten eraginpean. Hori dela eta, itsaso oso zakarra izan genuen egun batzuetan, eta euri pixka bat ere bai. Hilaren 9tik aurrera, antizikloia iparralderantz mugitu zen, zirkulazio meridianoari bidea utziz. Orduan, itsasoko fluxu umelak hileko prezipitaziorik oparoenak utzi zituen. Gerora, antizikloia kontinentean kokatu zen, eguraldia egonkortu eta giro hotza eta lehorra izan genuen. Ondoren, ekialdetik etorritako goi-geruzetako aire hotzak Iberiar Penintsulako iparraldea zeharkatu zuen, hilaren 17an eta 18an Arabako hegoaldean prezipitazio ahula utziz eta elur-kota 500 m-ra kokatuz. Jarraian, goi-geruzetan zegoen aire masa hotz hori Cadiz-ko golkoan zegoen beste aire masa hotz batekin elkartu zen, ezegonkortasuna lurrazalean islatu eta depresiogune bat sortu zen. Depresiogune honen eta Europa Erdialdeko antizikloi baten artean hegoaldeko fluxu indartsu bat sortu zen Iberiar Penintsulan, eta horren ondorioz tenperatura igo egin zen. Hilaren bukaeran egoera sinoptikoa berriro ere Europa Erdialdeko antizikloiaren menpe egon zen eta depresioguneek eta fronteek ezin izan zuten gurera hurbildu.

Abendua lehorra izan zen. Araban ohikoa izaten den euriaren erdia baino gutxiago jaso zen. Isurialde-banalerrotik iparraldera aurkitzen diren estazioetan euri gehiago jaso zen, bereziki Gipuzkoan, baina beti ere batez bestekoaren azpitik. Balio altuenak Gipuzkoako barnealdean neurtu ziren (Añarbe 177 mm, Leitzarán 152 mm, Lasarte 139 mm). Urte sasoiaren kontutan hartuz gero, Ebro aldean euri gutxi egin zuen (Zambrana 9 mm, Párganos 12 mm). Prezipitazio-egunak nagusiki lehenengo hamabostaldian zenbatu ziren; hilaren 10a izan zen egun euritsuena, batez ere Gipuzkoan. Hemen pilatutako prezipitazioa nahiko handia izan zen (Añarbe 55 mm, Aitzu 52 mm). Aurreko eguna ere euritsuena izan zen kostaldean (Bermeo 31 mm, Oiartzun 25 mm).

Temperaturari dagokionez, abendua hotza izan zen, ohiko batez bestekoa baino 0.5 °C baxuagoa. Kostaldean 9-10 °C inguruan kokatu zen batez bestekoa eta 4-5 °C inguruan Arabako Lautadan. Lehenengo herenean izan genuen zirkulazio zonalari esker, tenperatura ez zen hain hotza izan. Izozte-egun asko zenbatu ziren. Hilaren 12tik 17ra izozteak lurralde osora zabaldu ziren; Arabako barnealdean ertainak izan ziren. Azken egun honetan Arabako Mendietan izozte gogorak eman ziren eta hilabete osoko minimo absolutuak neurtu ziren (Navarrete -10.1 °C, Salvatierra -8.5 °C, Arkaute -8.1 °C).

Haizea aldakorra izan zen, konfigurazio sinoptiko desberdin ugari izan genituelako. Hilaren lehenengo herenean fluxu zonal nagusitu zen eta ia egunero haize-bolada oso indartsuak neurtu ziren haizeguneetan. Aipagarrienak hilaren 9an neurtutakoak izan ziren, mendi inguruetan eta kostaldean 100 km/h-ko abiadura gaitu zen (Jaizkibel 117.7 km/h, Bermeo 112.7 km/h). Hilaren 18tik 21era ere haize indartsua izan genuen, oraingoan hegoaldekoa, Portugaleko kostaldetik gertu kokatu zen depresiogune batek eraginda. Horrela, hileko baliorik altuenak 20an neurtu ziren (Orduña 148 km/h, Oiz 126 km/h).

